

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

5482

AGINDUA, 2014ko abenduaren 19koa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, zeinen bidez ezartzen baitira gutxieneko ekoizpen- eta merkaturatze-kopurua eta elkartutako ekoizleen gutxieneko kopurua, giza kontsumorako lekaleen sektorean diharduten Nekazarien Elkarte eta horien Batasun gisa aitortuak izateko.

Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazarien Elkarteei eta horien Batasunei buruzko urtarilaren 20ko 13/2004 Dekretuaren bidez ezarri ziren Euskal Autonomia Erkidegoko ekoizpena elkarrekin merkaturatzen duten Nekazarien Elkartek eta horien Batasunak aitortzeko aplikagarriak diren oinarritzko arauak.

Dekretu horren 2. artikulua araber, izendapen hori lortzeko, gutxieneko ekoizpen- eta merkaturatze-bolumenak bete beharko dira, bai eta produktu bakoitzerako edo produktu-multzotarako elkartean gutxienez egon beharreko kide kopurua ere; eranskinean jasota daude. Halaber, 7. artikuluan xedatzen denez, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren agindu baten bidez, Nekazarien Elkarteei nahiz horien Batasunei aldatu egin ahal izango zaizkie –produktu bakoitzari edo produktu-multzoei dagokienez– gutxieneko ekoizpen- eta negozio-bolumenak, bai eta elkartean nahiz batasunean gutxienez egon beharreko kide kopurua ere. Kopuruak eta produktuak dekretu honen eranskinean jaso dira; produktu edo produktu-multzo berriak sartu ahal izango dira.

Giza kontsumorako lekale-ekoizleek adierazi dute urtarilaren 20ko 13/2004 Dekretuan xedatu-takoari atxikitzeko eta sektore horretan nekazarien elkarte bat eratzeko interesa; beraz, gutxieneko ekoizpen- eta negozio-bolumenak ezartzen dira, bai eta ekoizle elkartuen gutxieneko kopurua ere, eta aipatu dekretuaren eranskinean sartzen dira. Horiek horrela, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ezartzea gutxieneko ekoizpen- eta negozio-bolumen hauek eta gutxieneko ekoizle-kopuru hau giza kontsumorako lekaleen sektoreko nekazarien elkartearen izendapena jasotzeko:

Produktua	Gutxieneko negozio-bolumena	Gutxieneko kide kopurua	Gutxieneko ekoizpena
Giza kontsumorako lekaleak	1.250.000 €	40	1.300.00 Kg

Bigarrena.– Ezartzea gutxieneko negozio-bolumen hau eta gutxieneko ekoizle-kopuru hau giza kontsumorako lekaleen sektoreko nekazarien elkartearen izendapena jasotzeko:

Produktua	Gutxieneko negozio-bolumena	Gutxieneko kide kopurua
Giza kontsumorako lekaleak	5.500.000 €	80

Hirugarrena.— Barne hartzea Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazarien Elkarteei eta horien Batasunei buruzko urtarrilaren 20ko 13/2004 Dekretuaren eranskineko aurreko ebatzietan ezarritako gutxieneko ekoizpen- eta negozio-bolumenak, bai eta gutxieneko ekoizle elkartuen kopurua ere.

Laugarrena.— Agindu honen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez diezaioke interesdunek Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, edo bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bosgarrena.— Agindu honek, sinatzen den egunetik aurrera izango ditu ondorioak, hargatik eragotzi gabe Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko abenduaren 19a.

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.